

## Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politikak, Lana eta Berdintasun batzordeko mahaiari

**Aintzane Ezenarro Egurbide** Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkideak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, Gemma Zabaleta Areta Enplegu eta Gizarte Gaietarako sailburuaren agerraldia eskatzen du, Gizarte Politikak, Lana eta Berdintasun batzordearen aurrean, Eusko Jaurlaritzak sortu duen elkarrizketa sozialaren mahaiaren inguruan azalpenak eman ditzan.

### **ZIOA:**

Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, 2009ko uztailaren 3an, elkarrizketa sozialaren mahaiari abiatu duela iragarri du komunikabideen aurrean. Eskainitako xehetasunen artean, honako informazioa argitaratu da, besteak beste: uztaileko bigarren astean hasiko dela lehenengo negoziazioa; mahai nagusi bat eta alorreko hiru mahai eratuko direla; zein izango den mahai nagusiaren osaketa eta funtzioa; zein gai jorratuko dituen alorreko mahai bakoitzak.

Hala ere, informazio guztia komunikabideei emandako prentsaurrekoan eta eskainitako hiru orriko txostenean oinarritzen da. Horrela, Legebiltzarreko alderdiek, eta Gizarte Politikak, Lana eta Berdintasuneko batzordea osatzen dugun legebiltzarkideok ez dugu elkarrizketa sozialaren mahaiaren inguruko xehetasunik jaso. Jorratzen diren gaiak aski garrantzitsuak iruditzen zaizkigu, bizi dugun egoera ekonomikoa gaineratuta, Legebiltzarrean Eusko Jaurlaritzak burutuko duen gai honen inguruko politiken berri jasotzeko.

### **AGERRALDI ESKAERA:**

Hori dela eta, Gemma Zabaleta Areta Enplegu eta Gizarte Gaietarako sailburuaren agerraldia eskatzen du, Gizarte Politikak, Lana eta Berdintasun batzordearen aurrean, Eusko Jaurlaritzak sortu duen elkarrizketa sozialaren mahaiaren inguruan azalpenak eman ditzan

**Gasteizen, 2009ko uztailaren 3an**

**Aintzane Ezenarro Egurbide**  
Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkidea

